



**Baztango Udala**

## **BANDOA**

### **2020. URTEKO EGUTEGI FISKALA**

Baztango Udalak udal zergen egutegi fiskala argitaratzen du, bizilagunek aurreikuspen ekonomikoa egin eta urtean zehar antolatu ahal izateko.

Koronabirusaren osasun-krisiak (COVID-19) sortutako ezohiko egoera dela eta, Udalak ordainketen epeak malgutuko ditu eta, hala badagokio, zatikatzeak baimenduko ditu.

Horrela, tokiko zergak borondatez ordaintzeko epea 2020ko abenduaren 31ra arte luzatuko da.

Egun horretatik aurrera, Zerga-bilketako Araudi Orokorrean ezarritako errekaruak aplikatuko dira, eta premiamendu bidez kobratzeko tramiteak egingen dira.

Tokiko zergen zatikapena eskatu nahi dutenek udaletxera jo beharko dute berariaz jakinarazteko.

### **2020. URTEKO EGUTEGI FISKALA (HELBIDERATUTAKO KOBRANTZAK)**

.- 2020ko 1. Seihilekoko lurraren gaineko kontribuzioa: 2020ko uztailaren 3a.

.- 2020ko 1. Seihilekoko zaborren tasa: 2020ko abuztuaren 4a.

.- 2020ko 2. Seihilekoko lurraren gaineko kontribuzioa: 2020ko urriaren 9a.

.- 2020ko 2. seihilekoko zaborren tasa: 2020ko azaroaren 2a.

.- Herri-aprobetxamenduak: 2020ko azaroaren 16a.

.- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga: 2020ko abenduaren 2a.

Data hauek gutxi gorabeherakoak dira. Hala ere, dagokion bandoa iragarriko da, tokiko zerga bakoitza jaulki eta onartuta. Baztango Udalaren webgunean ere argitaratuko da.

Baztanen, 2020ko maiatzaren 19an

Joseba Otondo Bikondoa  
Baztango alkatea

